

Narrazioak funtziona dezan

Alex Gurrutxaga

Beste genero batzuetako lanen artean, narrazio mordo argitaratu da Xabier Mendiguren. Azken liburuan bost narrazio luze sartu ditu, bilduma txukuna osatuz. *Arantzak barrurantz* titulua Joseba Sarrionandiaren poema ezagunari egiten dio keinu; izan ere, narrazio gehienetako pertsonaia bakarrik edo galduta daude: bikote harremanean zein familian tokia hartu ezinik, iragan traumatikoa buelta eman ezinda, heriotzari aurre egin beharrean, eta abar. Bildumaren beste ezaugarri orokor bat euskal gatazkaren presentzia da; gehienetan agertzen baita, zuzenean ez izanda ere, hari dagokion aspekturen bat.

Aurreneko narrazio gogoz kontra bidaiatzen duen protagonista agertzen zaigu. Txentek «penak eta minak» barruan daramatza, eta Erromara egiten duen bidaian aterako zaizkio, modu oso partikularrean. Bi nar-

rratzailerekin jolasten du idazleak: bata, Txenteren bidaiak kontatzen diguna; bestea, Txente bera, bidaiatzeari buruzko bere usteak ematen dituena. Horrela, narrazioa eta saiakera tonua uztartuz, teknikak nabarmen laguntzen dio istorioari.

Gatazkari dagokionez, bi dira zuzenean hari lotzen zaizkion narrazioak. Bigarrena da bat, *Odola eta esperma*. Iheslaria da protagonista bat, eta minbizia dauka: potentzialitate handiko bategi-



'Arantzak barrurantz'

Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi.
Argitaletxea: Elkar.

tea. Emakumezko narratzailea Rafa iheslariaren laguna –eta amodio desiratua– da, eta dakizkienak eta imajinatzen dituenak kontatzen dizkigu. Elkarrizketa batzuen sinesgarritasun urria gorabehera, abenturazko trama eta gatazkari buruzko lerroarteko hausnarketak fin ezkontzen dira.

Gatazkan murgiltzen den beste narrazioa *Arantzak barrurantz* da, liburuaritua ematen diena, baina ez horregatik liburuko onena. Torturatua izan den protagonistaren bizipenak kontatzen ditu. Idoiak isildu egin du gertatua eta, puntu horretan, idazleak egiten duen traumaren lanketa ona da. Bi arazo handi daude, ordea: bata, torturatzaile-torturatuaren arteko topaketa topiko eta sinesgaitza; bestea, gertatu baino dezente lehenago usaintzen dela topaketa hori. Horretaz aparte, garaiotan, amaierako planteamendua –mendekua– gutxienez harrigarria gerta daiteke...

Orratzak narrazioak ere merezi du aipatzea. Bi pertsonaia lo-

tzen ditu: drogei engantxatutako Artola, preso ohia, eta Don Domingo medikua, frankista zaharra. Fokalizazioa bien artean txandakatuz egiten du testuak aurrera, eta bi ildoek amaieran egiten dute bat. Beste maila batean, orratzek lotzen dituzte pertsonaia –penizilina eta heroina–: intrigazko gertakariaren batera, bizimodu antagonikoaren arteko joko interesgarria da.

Xabier Mendigurenek neurria hartuta dio narrazio luzeari, eta lortzen du hauek, distiratsua ez diren ere, ongi funtziona dezaten. Ez hori bakarrik, ikusten dira liburua txukuna izan dadin idazleak dauzkan keinu eragin-korrak: narrazioen antolaketa eta horien arteko lotura txikiak, testu-artekotasun agerikoa, etab. Beharbada, abildade horregatik harrapa dakioke errazkeriaren ondorio bat edo beste ere. Adibidez, aurreneko bi narrazioetan, balizko irakurle bati idazten diote protagonistek, baina justifikaziorik ez dago: nor da irakurle hori? Idazleak al dira ba protagonista guztiak? Irakurleok kateatzeko tranpatxoak dira: beharbada, irakurle ahazturik den mikazteko modukoak; ziurrenik barkagarriak, narrazio onak baitira.



'Sariketa'

Egilea: Karlos del Olmo.
Argitaratzailea: Centro de Linguística Aplicada Atenea (Madrid).

Urtebetetze festa bat, moztorrodantza, egieren jokoa, masakaren erauztea... Hori dena eta beste elementu asko aurkituko ditu antzerki lan honen irakurleak. Halaber, ondoan, obraren gaztelaniako itzulpena. Ignacio Amestoi eta Jon Kortazarren idazlan bana du aurkezpen gisa.



'Oñatiko hitzen altorra'

Egilea: Urko Egaña Calderon.
Argitaratzailea: Oñatiko Bertso Eskola.

Erbinudearen koaderno

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Loa loa txuntxurrun berde... hasten den sehaska kanta ospetsuaren hitzak erabiliaz, tradizioari keinu egiten dio obraren izenburuak, eta ez dohanik.

Barruan aspaldikoak diruditen kontuak aurkituko ditugu, ipuinak, *Txuntxurrun berdeko* zuhaitz tanta baten gerizpean emanak. Eta zer aspaldikoago, animaliak hizketan zekiten garaia baino?

Sarrerako kontakizuna zenbaitze, guztira hogeita hamar ipuin dira, animaliek kontatuak, eta salbuespenak salbu (*Lo txarreko haurrarena*, *Txoriarrena* eta *Amama Maritxelena* ipuinetan pertsonak dira pertsonaia na-

gusi), denetan animaliak dira protagonista.

Sarrerako ipuin horrek hartzen du liburua batzeko lana, halatsu labur litekeena: satorra, behinola kementsu bezain eskuzabal izan zena, zahartzaroaren makurrek



'Txuntxurrun berdeko animalien kontakizunak'

Egilea: Xabier Olaso. Argitaletxea: Pamiela.

abailduta utzi dute, eta gaixoa negarretan itoa bizi da. Horren jakitum, esker oneko ipuin bana kontatuko diote lagunek, bihotza alai dakion, amiñi bat sikiera.

Tropa latza da: badira etxe-abereak eta badira piztiak, badira hegaztiak eta baita itsasoetako bisitariak ere, baina gehien agertzen den izakia zomorroa da. Lau ipuinetan inurria da protagonista, eta beste lautan ehunzangoak, tximeletak, arkakusoak eta zorriak.

Oro har, kontakizun umoretsuak dira, barregarriak izan gabe, harridura eta ezustekoa eragin nahi duten horietakoak. Ipuin laburrenaren hasten da kontakizuna, eta luzearenakin amaitzen da. Erronka bat balitz bezala.

Guztietan errepikatzen da egitura, tonua eta irudimenaren mugak urratzeko ahalegina, bi zutabetan oinarrituta: hasiera original edota bitxi bati koherentzia estuenean «zintzo» jarraitzea, eta amaierarako ezusteko bat gordetzea.

Ildoa garbi adierazten da, eta lehen hogeita ipuinetan ez da salbuespenik. Kontaketa luza ahala, ordea, eboluzio bat dago. Hasierako ipuin laburrenatan

esaldi bakarrean eraikitzen da testuingurua, eta azken esaldian ematen ezustekoa. Luzatu ahala, tarte handiago hartzen dute eraikuntza horiek, paragrafoa eta gehiago ere bai.

Eta ez bakarrik tarte handiago hartu, harridurarako gaitasuna galduta ere galduten dute hiruzehalau kontakizunak –zaila da zehatz esatea muga non jarri nahi den, harridurarako zenbatean gauden emanak zehaztu ezin den bezala; nolana ere, makalaldia bistakoa da–. Adibide bat jartzearen: *Dromedarioarena* eta *gameluarena* kontakizunean, animalia horien konkurren jatorria azaltzen zaigu, abiapuntu originalik gabe eta amaierako ezustekoa ahaztuta. Hasieratik daki irakurleak ipuinen amaiera zein izango den, burua nekatu gabe, narratzaileak zer gertatuko den azaltzeko lana hartzen duelako. Zorionez, hala-koak gutxi begitandu zaizkit. Amaiera aldera, azken ipuinetan tonua eta ezusteko gaitasuna berreskuratzen sentitu ditut, bai na lehen labur motz haiekin lortzen zen txispa erdietsi gabe.

Dudarik gabe boz gora, ozen zein xuxurla kontaktzeko ezin aproposagoak, zeinahi egoeretan, helduak haurrei.

Askotariko iturriak erabilia, testigantza eta material ugari batu du Urko Egaña Calderon bertsolari azpeitiarrak Oñatiko bertsolariak azken 130 urteetan izan duten harremana jasotzeko. Bat-bateko nahiz jarritako bertso ugari irakurtzeko aukera ematen du liburua. Hitzaurrea Andoni Egañak idatzi du.



'Idatz & Mintz', 57. zenbakia

Argitaratzailea: Labayru Ikastegia.

Miren Agur Meabe, Iratxe Ormazza, Luigi Anselmi, Jaber Kalzakorta, Eneko Urizar, Iñaki Sarriugarte, Xabier Boveda eta Sebastian Gartzia Trujilloren idazlanak biltzen ditu *Idatz & Mintz* aldizkariaren 2014ko azkeneko zenbakia. <